

Enpresa ekeintzailetasuna Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune eta herrigunetan

(Entrepreneurial Activity in Urban and Rural Areas of
the Autonomous Community of the Basque Country)

Arando Lasagabaster, Saioa

Mondragon Unib. Enpresa Zientzien Fak. Estrategia Antolakuntza
eta Ekintzailetasuna Saila. Larraña, 16. 20560 Oñati

Peña Legazkue, Iñaki

Deustuko Unib. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fak.
ORKESTRA. Lehiakortasunerako Euskal Institutua.
Mundaiz Bidea, 50. 20012 Donostia
ipena@orquestra.deusto.es

BIBLID [0212-7016 (2010), 55: 1; 11-37]

Artikulu honetan Euskal Autonomi Erkidego-ko (EAE) landa eremu eta metropoli eskualdetako enpresa ekintzailetasuna gaia aztertu dugu. Gure ikerketa lana hiru arloren azterketan oinarritu da bereziki: enpresa ekintzaileen profila, enpresa berrien ezaugarriak, eta erabilitako finantziario iturrien azterketan hain zuzen. Hiru alorrotan lortutako emaitzek, enpresa berriak sortzeko unean EAE-ko landa eremu eta metropoli eskualdeen artean desberdintasunak badirela agerian utzi dute.

Giltza-Hitzak: Enpresa ekintzailetasuna. Landa eremua. Metropolia.

El objeto de este artículo es el estudio de la actividad emprendedora en el medio rural y en las zonas metropolitanas de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV). Nuestra investigación se ha centrado especialmente en tres ámbitos: perfil de las empresas emprendedoras, características de las nuevas empresas y medios de financiación utilizados. Los resultados de la investigación en estos tres ámbitos evidencian que existen diferencias entre el medio rural y las zonas metropolitanas de la CAV a la hora de la creación de nuevas empresas.

Palabras Clave: Emprendizaje empresarial. Medio rural. Metrópoli.

Cet article présente une analyse de l'apprentissage entrepreneurial en milieu rural et dans les zones métropolitaines de la Communauté Autonome Basque (CAV). Nos recherches ont principalement porté sur les trois domaines suivants : profil des entreprises entrepreneuses, caractéristiques des nouvelles entreprises et moyens de financement utilisés. Les résultats de ce travail ont mis en évidence les différences existantes entre le milieu rural et les zones métropolitaines de la Communauté Autonome Basque en matière de création de nouvelles entreprises.

Mots Clé : Apprentissage entrepreneurial. Milieu rural. Métropole.

1. SARRERA

Ekintzailetasanak eragin positiboak dauzka ekonomian lehiakortasuna hobetzen eta enplegua sortzen laguntzeaz gain, hazkunde ekonomikoa bultzatzen baitu. Audretsch (2007) ikertzaile entzutetsuaren arabera, gizarte ekintzailea (entrepreneurial society) izateak lagundu die Ameriketako Estatu Batuei urteetan Europak eta Japoniak baino hazkunde tasa handiagoak izaten. Politika publikoetako arduradunek ere argi ikusten dute ekintzailetasuna dela ekonomia baten hazkundera eta produktibitatea bizkortzen duena (Prodi, 2002).

Honen harira, Global Entrepreneurship Monitor proiektuak enpirikoki herrialdeen ekintzailetasan tasaren eta biztanleko Barne Produktu Gordinarean arteko erlazioa aztertu du. Ikerketa horren arabera, bi aldagai hauen arteko erlazioa U formakoa da: herrialde txiroetan ekintzailetasan tasa erlatiboki handia da, erdi mailako herrialdeetan ekintzailetasanaren presentzia txikiagoa litzateke, eta azkenik, herrialde garatuenetan ekintzailetasan tasak berriro egingo luke nabarmen gora. Hori horrela, erdi mailako herrialdeek (EAE kasu) arreta berezia jarri dute azken urteetan ekintzailetasuna sustatzeko neurriak hobetzen, euren ekonomiaren ongizate maila areagotzen lagunduko dielakoan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren ekintzailetasan tasa TEA¹ aldagaiarekin neurtuz gero, %6,9koa izan da 2008. urtean. Hau da, biztanleria aktiboaren % 6,9a ekintzailetasan prozesu baten murgilduta zegoen galdeketeraren unean. Tasa hori Alemania, Italia eta Frantziakoa baino altuago izan arren, ez da Ameriketako Estatu Batuetan, Norvegiar edo Irlandan duten mailara iristen (Peña et al., 2009).

Herrialdeen arteko ezberdintasun horrek argi uzten du ingurune geografikoaren ezaugarriek (adib. gizartearen kulturak, baliabideek, erakunde publikoetako politikek) zeresana izan dezaketela ekonomia bateko ekintzailetasan tasan. Are gehiago, ezberdintasunak ez dira bakarrik herrialdeen artean nabarmentzen (Bosma et al., 2007), ekonomia bateko eskualdeen artean ere ageri dira (Fritsch, 2004).

Aurrez egindako zenbait ikerketek garbi adierazi dute inguruneko faktoreek eragin zuzena dutela ekonomia bateko ekintzailetasan tasan, halaber ingurune geografiko bakoitza egokiagoa izan daiteke ekintzailetasan mota bat edo beste garatzeko. Esaterako, Kaliforniako Silicon Valley inguruneak erdieroaleen sektorearen garapena edo Boston inguruneak biozientzi jardueren garapena bultzatzeko ekosistema egokia dutela esan ohi da.

Ekonomia geografikoaren lerrotik abiatu diren ikerketa batzuek landa eremuko eta eremu metropolitarrako ekintzailetasanaren arteko konparaketa egin izan dute. Herrialde batzuetan, handienetan batez ere, landa eremua eta metropolia oso berezita daude eta eremu bakoitzaren garapen ekonomikoa oso ezberdina da. Interesgarria da herrialde horietan ekintzailetasanaren errealitatea bi ingurune hain ezberdinetan nolakoa den azaltzea.

1. GEM proiektuaren arabera, TEA aldagaiak 0-42 hilabete arteko merkatu ibilbidea duten enpresen jabe kopurua /biztanleria aktiboa neurtzen du.

Izan ere, aglomerazio ekonomien teoriaren defendatzaileek enpresen kontzentrazioak inguruko jarduera ekonomikoarentzat kanpo eragin positiboak sortzen dituela baieztatzen dute. Adibidez, enpresen kontzentrazio handia dagoen ingurune baten hornitzaileak eta bezeroak aurkitzeko erraztasunak egon daitezke eta harreman estuagoa izan daiteke, enpresentzat zerbitzu eskaintza handiagoa egon ohi da edo ondo prestatutako langileak behar dituen enpresak aukera zabalagoa izan dezake langileak kontratatzeko orduan. Zehazkiago, hiri baten edo metropoli baten kontzentratutako enpresek urbanizazio ekonomiak sortzen dituzte eta horrek abantaila handiak eskaintzen dizkio ingurune horretan enpresa sortu nahi duen ekintzaileari (Duranton eta Puga, 2000).

Teorian urbanizazio ekonomiak ekintzailetasun tasan eragin positiboa izan dezakeen ideia oso defendagarria izan arren, enpirikoki erlazio hori hain argia denik ezin izan da erakutsi. Gainera, eremu geografiko bat noiz den eta noiz ez den urbanoa zehaztea ariketa konplexua izan ohi da. Ondorioz, urbanizazioaren abantailak zeintzuk diren identifikatzea eta neurtzea oso ekimen ausarta da, emaitza eztabaidagarriak dakartzana.

Beraz, eztabaidagarriak diren konklusioak eman dituen gai bat izanik, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua aztertzeak literatura ekonomikoari argibide berriak eman dakizkiola uste dugu, alde batetik ingurune honetan gai hau jorratu gabe dagoelako eta bestetik, aztertu izan diren herrialde handiekin konparatuz, bestelako ezaugarri geografikoak dituen ingurunea delako. Horretarako, helburu bikoitza duen ikerketa diseinatu dugu:

(a) alde batetik, EAEko landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasun tasak kalkulatu eta konparatuko ditugu.

(b) bestetik, hiru ardatzetan oinarritutako alderaketa burutuko dugu:

- Landa eremuko eta metropoliko ekintzaileen konparaketa
- Landa eremuan eta metropolian sortutako enpresen konparaketa
- Landa eremuko eta metropoliko ekintzaileek erabiltzen dituzten finantza iturrien arteko konparaketa.

Azterketa honek ekarpen interesgarriak egin ditzakeela uste dugu. Komunitate akademikoarentzat landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasunaren arteko konparaketari buruz ebidentzia enpiriko gehiago emateaz gain, ikerketa herrialde txiki batentzat, non landa eremua eta metropolia ez dauden geografikoki horren berezita, egiteak ondorio interesgarriak erakuts ditzake. Erakunde publikoetako arduradunentzat eta garapen agentzietako kargudunentzat, eskualdeetako politikak diseinatzeko lagungarri izan daiteke eta azkenik, ekintzaile potentzialei euren enpresaren kokalekuari buruzko argibideak eskaini dakizkieke.

Artikulua sei zatitan banatuta dago: sarrera honen ostean, literaturak gai honen inguruan diotenaren erreposoa egin da. Hirugarren atalean EAEko ekintzailetasunaren erreposo sakon bat egin dugu. Laugarren atalean, azterketa egiteko

erabili diren datuak eta metodologia deskribatu da. Jarraian, emaitzen azterketa sakona egin eta bukatzeko, lanaren konklusio orokorrak aurkeztu dira.

2. ENPRESA BERRIEN LOKALIZAZIO EREDUAK

Enpresen lokalizazio aukeraketak XX. mende hasieratik interes berezia piztu du ekonomistengan. Gai honek hainbat hamarkadatarako ibilbidea izan arren ez du gaurkotasunik galdu ekonomian azken hogeitaz urteetan gertatu den globalizazio prozesuak enpresen lokalizazio erabakien irizpideak aldarazi dituelako.

Prozesu aldakor honen erdian hainbat teoria argitaratu dira enpresa berrien lokalizazioa esplikatzen asmoz. Hona hemen teoria garrantzitsuenen laburpen bat, gure azterketaren konklusioak ateratzeko orduan baliagarria izan daitekeena:

Teoria tradizionala

Teoria tradizionalaren arabera, ekintzaile batek bere enpresa kokatzeko orduan enpresako kostuak minimizatzea bilatzen du. Teoria honek indar handia izan zuen XX. mendeko 60ko hamarkada bitartean eta orduan, garraio kostuak ziren enpresako kostu garrantzitsuenak, beraz, garraio kostu baxuena eskaintzen zuen kokapena zen ekintzaile batentzat egokiena. Horrek lehengaietatik hurbil (lehengaietan intentsiboak ziren jardueren kasuan) eta merkatutik hurbil (konsumitzailearengana zuzendutako enpresen kasuan) kokatzera eramaten zituen enpresa berriak. Hala, landa eremuetan erruz aurki daitezkeen lehengaiekin erlazionaturako enpresentzat eremu horiek metropoliak baino erakargarriagoak dira eta azken kontsumitzaileen talde handira zuzendutako enpresentzat aldiz, ingurune metropolitarra tentagarriagoa bihurtzen da.

Hala ere, azkeneko urteetan garraioaren garapenari esker, garraio kostuak horrenbeste gutxitu direla kontuan hartuta, badirudi ekintzaileek beste faktore batzuk ere hartzen dituztela kontuan euren enpresaren kokapena erabakitzeko.

Toki zentralaren teoria

Teoria honen arabera, ekintzaileak bere jardueraren errentagarri izateko behar duen bezero kopurua eta haien kokapena aztertu behar ditu. Jarduera ekonomikoak euren bezeroarengana jardueraren erradio desberdinetan zuzendu daitezke eta errentagarri izateko bezero kopuru desberdina behar dute. Horrela, errentagarri izateko jardueraren erradio txikia behar duten enpresak landa eremuetan koka daitezke, bertan dagoen bezero kopuruak (bai kontsumitzaileak eta baita beste enpresak ere) ekintzaileak martxan jarri duen jardueraren bideragarri bihurtzen dutelako. Jardueraren erradio zabala behar duten jarduerak, aldiz, metropolian kokatzea nahiago izaten dute, landa eremuak ez baitie errentagarritasun maila nahikoa eskaintzen.

Aglomerazio ekonomien teoria

Teoria honen arabera, ekintzaileak bere enpresa kokatzeko orduan ez ditu bakarrik enpresari dagozkion aldagaiak kontuan hartzen (adib. kostuak eta merkatuaren kokapena), ekonomiak ingurune horretan kokatua egoteagatik eskain diezazkiokeen onurak ere aintzat hartzen ditu. Hau da, lurraldea agente ekonomikoen arteko erlazioek definitzen dute eta erlazio horiek industri dinamika espezifiko baten garapena ziurtatzen dute. Beraz, kanpotik etor daitezkeen eraginek zeresan handia dute ekintzaile baten kokapen erabakian.

Oro har, bi izan daitezke enpresatik kanpo lor daitezkeen abantaila motak: lokalizazio ekonomiak eta urbanizazio ekonomiak. Lokalizazio ekonomiak sektore jakin baten jarduten duten enpresen kontzentrazioetik datoz. Hau da, enpresa batek bere sektoreko beste enpresa batzuk kokatuta dauden leku berean kokatzea nahi izango du, ingurune horretan eskulan kualifikatu eta espezializatua lortzeko aukera zabalagoa izan dezakeelako edo, sektoreari erantzuna ematen dioten zerbitzu konkretu batzuk aurki ditzakeelako. Lokalizazio ekonomiak lortu nahi dituen ekintzaileak ez dio horrenbesteko garrantzia emango landa eremuan edo metropolian kokatzeari, inguruan sektore bereko enpresak aurkitzeari emango baitio lehentasuna.

Urbanizazio ekonomiak, aldiz, sektoreari baino gehiago lurraldeari lotutako abantailak dira. Jarduera berria kokatuko den inguruan merkatu potentzial zabalagoa edo beharrezko diren zerbitzu eta azpiegitura guztiak izatetik enpresak onura nabarmenak lortzen dituztenean, urbanizazio ekonomiak lortzen dituela esaten da. Enpresa ugari eta ezberdinen kontzentrazioetik abantailak lor ditzakeen ekintzaileak ingurune metropolitarran kokatu nahiko du bere jarduera eta horrelakorik lortzeko biderik ez duenak nahiago izango du landa eremuan kokatu eta beste abantaila mota batzuk aprobetxatu (adib. lurraren prezio txikiagoa).

Laburbilduz, ekintzaile batek bere jarduera non kokatu erabakitzeke orduan hainbat faktore hartu behar izaten ditu kontuan, kokapenarekin erlazioan dutako kostuak (adib. garraioa), jarduera erradioa eta ingurutik etor dakizkiokeen aglomerazio ekonomiak. Hala ere, bada beste faktore bat teoria ekonomiko hauek aintzat hartzen ez dutena, baina enpresa berrien kasuan eragina izan dezakeena: ekintzailearen nahia.

Enpresa berrien kokapenari buruz gabiltzanean ezin da ahaztu sarritan enpresa horiek, sortze momentuan behinik behin, oso txikiak izaten direla eta beraien merkatua oso murrizta dela. Horrelako kasuetan, ekintzaileak beraren zako naturala eta eroso den lekua hautatzen du bere jarduerari ekiteko (Figereido et al., 2002). Faktore honek ere eragin nabarmena izan dezake ekintzaileek bere jarduera landa eremuetan edo metropolian kokatu behar duten erabakitzeke orduan.

Teoria horien garapenak argi uzten du enpresen lokalizazioaren erabakia ez dela prozesu erraza izaten. Are zailagoa da erabaki horiek zein faktorek baldintzatzen dituzten ulertzea, baina hurrengo puntuetako azterketak gai honen inguruko ebidentzia berria plazaratzea du helburu.

3. EKINTZAILETASUNA EUSKAL AUTONOMIA ELKARTEAN

Ondoko atal honek Euskal Autonomia Elkarteko ekintzailetasunaren laburpen sakon bat eskaintzen du. Deskribapen hau GEM proiektuaren barruan EAerako txostena idazten duten taldeak 2008. urterako argitaratutako lanean oinarrituta dago eta ekintzailetasunaren alderdi nagusiak aztertzen ditu. Atal honetan ez dugu metropoliko ekintzailetasunak eta landa-eremuko ekintzailetasunak dituzten ezaugarrietaz jardungo, hori 4. ataletik aurrera aztertuko dugun gaia izango baita.

1. Taula: TEA adierazlearen eboluzioa EAEn

TEA	2004	2005	2006	2007	2008
Orokorra	% 5,3	% 5,4	% 5,5	% 6,4	% 6,9
Enpresa sortu berriak	% 1,4	% 2	% 2,2	% 2,8	% 3,6
Enpresa berriak	% 3,9	% 3,5	% 3,4	% 3,6	% 3,3

Iturria: GEM, 2008.

GEM proiektuaren 2008ko edizioaren arabera, euskal herritarren % 6,9a 42 hilabete arteko iraupena duten enpresa-ekimenetan murgilduta dago. Hau da, TEA adierazleak (*Total Entrepreneurial Activity*) azaltzen duenez, biztanleria aktiboaren % 6,9ak 42 hilabete baino gutxiago dituen enpresa bat sortu edo sortzen lagundu du. Gainera, ikuspegi ebolutibo batetik aztertuta (*ikus 1. taula*), ehuneko horrek hazkunde nabaria erakutsi du azken bi urteetan, hain zuzen portzenta-jezko puntu eta erdiko hazkunde aurreko hiru urteekin alderatuta. Horrenbestez, EAeko jarduera ekintzailearen tasa % 6tik gora izatea datu egonkorra dela esan liteke. Bestalde, egoera ekonomiko zail honetan herrialdeak ekintzailetasun tasa mantendu izana ere positiboa izan daiteke, bizi dugun krisi egoerak ekintzailetasun tasan atzerakadak izatea espero bait zitekeen.

Horrenbestez, jarduera ekintzaileak 2008. urtean izan duen aurrerakadaren ondorioz, Espainiaren eta Finlandiaren pareko mailan dago EAE, Europako lau potentzia handienek, hots, Alemaniak, Frantziak, Erresuma Batuak eta Italiak baino datu hobek eskaintzen dituelarik eta gainera bere eboluzioa, taulan ikus daitekeenez, positiboa da, krisialdiaren eragina nozitu gabe. Gainera, GEM 2008rako txostenak azaltzen duen legez, bilakaera positibo hau ez da Espainiako lurralde guztietan nabarmendu, izan ere Espainiako autonomia-erkidegoen artean, EAEz gain, beste hiruk soilik izan dute igoera euren adierazleetan (Madrilek, Aragoik eta Kantabriak). Gainerako erkidegoek, berriz, atzera egin dute.

GEM proiektuak, TEA adierazlea bi atal ezberdinetan banatzen du: alde batetik enpresa sortu berriak aztertzen ditu (0-3 hilabete artekoak) eta bestetik enpresa berriak (3-42 hilabete artekoak). Jarduera ekintzaile orokorrean izandako gorakada azaltzeko, ezer baino lehen, *enpresa sortu berriak* (0-3 hilabete) herritar helduen portzenta-jeak izan duen igoerari erreparatu behar zaio, % 3,6ra iritsi bai-

ta eta alderantziz, *enpresa berridun* (3-42 hilabete) herritar helduen kopurua 2006ko mailara jaitsi da, hau da, % 3,3ra (*ikus 1. taula*). Beraz, badirudi enpresa sortu berriek eman diotela benetako bultzada EAEko ekintzailetasunari.

Bestalde aipagarria da *enpresa finkatuak* (42 hilabete baino gehiago dituzten enpresek) izandako suspertzea, haien tasa % 9 izan baita, hots, aurreko urtekoa halako bi (Peña et al., 2008). Tasa horri esker, EAE laugarren lekuan dago Europako herrialdeen artean, Espainiako autonomia-erkidegoak alde batera utzita. *Enpresa ixteak*, berriz, gutxi izan dira: % 1. Gainera, enpresa bertan behera utzi duten herritarren % 26k adierazi duenez, enpresak merkatuan jarraitzen du beste jabe batzuen esku. Hori dela eta, benetako enpresa itxien tasa % 0,7 dela esan genezake.

Azkenik, ekintzaile *potentzialei* (datozen 3 urteetan enpresa-ekimenari ekiteko asmoa adierazi dutenei) dagokien adierazlearen igoera ere azpimarratu du GEM 2008ko txostenak: haien tasak 3 puntu egin du gora eta, horrenbestez, euskal herritarren % 7,5 da ekintzaile potentziala.

Ekintzailetasuna aztertzerako orduan garrantzitsua da aztertzea zerk bultzatu dituen norbanako horiek ekintzaile bihurtzera: batzuk ingurunean oportunitate bat identifikatu eta aprobetxatze aldera enpresa ekimen bat martxan jartzea erabaki ohi dute, beste batzuk aldiz beharrak bultzatuta (adib. beste lan aukerarik ez izateak) erabakitzen dute ekintzaile izatea. Duda gabe, norbanakoa enpresa sortzera eraman duen motibazioak bai sortutako enpresaren ezaugarrietan eta ziu-rrenik bere etorkizuneko espektatibetan ere eragin nabarmena izango du. GEM 2008ko txostenaren arabera euskal jarduera ekintzailearen barruan, ekimen guztien % 82ak inguruan identifikatutako oportunitate bati erantzunez erabaki du proiektua martxan jartzea. Ekintzaileen % 12 besterik ez du jo ekintzailetasunera beharrak bultzatuta eta % 6ak bestelako arrazoiak argudiatu ditu enpresa berriari parte hartzeko. Oportunitate baten identifikazioa izatea norbanakoak enpresa bat sortzera bultzatu duen arrazoi nagusia, printzipioz positiboa izan liteke herrialde baten garapenerako, ekonomiak aukera berriak eskaintzen dituela iradokitzen baitu. GEM 2008 txostenaren arabera, gainera, badirudi azken urte honetan enpresa berriak sortzeko aukerak atzematen dituztenen kopuruak gora egin duela, biztanleriaren % 27,7ak oportunitate onak daudela ikusteraino. Gainera, ekintzailetasunean adituak direnek ere, ekimen berriak sortzeko azken urte honetan aurrekoetan baino oportunitate hobeak daudela sinisten dute, horrek ekintzailetasunari epe motzean bultzada ederra eman diezaiokelarik. Datu hauek EAEn ekintzailetasuna epe motzera indartu dezaketelakoan gaude.

Oportunitateen perzeptzioaz aparte EAEko biztanleria helduak ekintzailetasunari buruz duen iritzia ere hobetu egin da 2008an eta gizartean ekintzailetza aukera profesionaltzat hartzea hobeto ikusten da. Bestalde, ekintzaileak gizarte estatus egoki bat duela eritzen dio biztanleriaren erdiak baino gehiagok, nahiz eta oraindik porrotari beldurra izatea ere oso ohikoa den gure gizartean.

Ekintzailetasuna bultzatu dezakeen beste faktore bat gizarteak ekimen berri bat sortzeko gaitasuna izatea da. Entzuna da EAEko biztanleriak hezkuntza maila

egokia duela eta hala konfirmatzen du GEM txostenak ere: biztanleriaren ia erdiak negozio berriak sortzeko gai ikusten du bere burua. Ikuspegi hau oso positiboa izan daiteke bai oportunitate bati erantzunez enpresa sortzen duenarentzat, baita beharragatik sortzen duenarentzat ere, sortutako enpresen kalitatean positiboki eragin bait dezake. Dena den, GEM proiektuaren barruan elkarrizketatutako adituek ez dute halako iritzi baikorra biztanleriaren gaitasunari buruz eta askoz eszeptikoago azaldu ohi dira.

EAEko ekintzailearen profila eta sortutako enpresen ezaugarriak dira hurrengo ataletan aztertuko ditugun beste aspektu batzuk. Orain EAEko ekintzaileen eta beraiek sortutako enpresen profil orokorra aztertzeraz mugatuko gara eta aurrerago ezberdinduko ditugu metropolian eta landa eremuan kokatutako ekintzaileen eta beraien enpresen profilak.

EAEko ekintzailearen profilari dagokionez, nahiko profil estandarizatu daukatela esan dezakegu, GEM proiektuaren barruan urtero-urtero argitaratu diren txostenek ez baitute aldaketa nabarmenik erakusten denboran zehar eta are gehiago, ekintzaileen profila ez da EAEko lurralde historikoen artean ere nabarmenki aldatzen. Generoari erreparatuta, oraindik gizonezko ekintzaileak nagusi dira gure ingurunean, baina emakumezkoen ekintzailetasuna poliki-poliki hazten dihoa. Ekiteko adinari dagokionez, berrogei urte ingurukoa dela aipatu beharra dago. Hezkuntza mailari erreparatuta ekintzaileen herenak goi mailako ikasketak dituztela aipatu behar da eta oso portzentaia baxua da ikasketarik gabeko ekintzaileena. Honek nabarmen baldintzatuko du EAEn sortzen diren enpresen profila. Enpresa berri bat martxan jarri dutenen urteko errenta maila 20.000-40.000 euro artean kokatzen da eta GEM proiektuko txostenaren arabera urteetan zehar handitzen joan da ekintzaile bihurtu direnen errenta maila, honek ekintzailetasunari erakargarritasun puntu bat ematen diolarik. Azkenik, aipatu beharra dago EAEko ekintzaileen artean kultura ekintzailea ez dagoela oso hedatua: izan ere gutxiengo batek besterik ez du aurrez beste enpresa berri baten sorreran parte hartu edo business angels bezela beste ekimen baten inbertitu izan.

EAEko proiektu ekintzaileen profilari erreparatuz, oro har, tamaina txikikoak direla aipatu behar da. Gutxi gorabehera, bost proiektu ekintzailetik batek soilik hartzen ditu bost langile baino gehiago eta proiektu gehienak abiatzen direnean euren finantza-kapitala 85.000 eurotik beherakoa izaten da. Sektorari dagokionez zerbitzu sektorea da oraindik emankorra eta erauzketa sektoreak ez du presentzia handiegirik enpresa berrien artean. EAEko eremua beste lurralde batzuekin alderatuz gero, azpimarratzekoa da manufaktura-sektoreak enpresak sortzeko duen ahalmena, eta hala erakutsi du azken urteetan. Hala ere, ezin esan daiteke gure ekintzaileek orokorrean ekonomian inpaktu handia eragingo duten ekimenak martxan jartzen dituztenik. Enpresa berri bat nazioartekotuta jaiotzen baldin bada, hazkunderako aukera nabarmenak ikusten baditu eta gainera berritzailea baldin bada eskaintzen duen produktu zein zerbitzutan etorkizunean ekonomiari egingo dioen ekarpena handiagoa izango denaren ustea onartua dago ekintzailetasuna aztertzen dutenen artean. Azken urteetan EAEko enpresek alor honetan bilakaera positiboa izan duten arren oraindik EAEko politika publikoek identifikatutako helburuetatik oso urrun aurkitzen dira. Ekimen berrien nazioartekotzeari buruz adibidez, GEM 2008 txostenak dio

enpresa berrien heren batek atzerriko bezeroei fakturatzeko diela, hau da, enpresen herenak baduela nazioartera zabaltzeko bokazio goiztiarra. Egia da bestalde, azken urteotan, oro har, bezeroen egituraren herrialdeetako kanpokoaren kopurua handitu egin dela, baina ezin ahaztu daiteke kanpoko bezeroak dituzten proiektu gehienek esportazio-tarterik txikienetan kokatzen direla funtsean.

Produktu eta estrategia berriak merkaturatzen dituzten ekimenak ere gutxiengoa dira. GEMen txostenaren emaitzek egiaztatu dute, berriz ere, enpresa-ekimenek bezeroentzat berritzaileak diren produktu edo zerbitzuak merkaturatzeko gaitasun handiagoa dutela enpresa kontsolidatuek baino. Gaitasun horri esker, enpresa berriek lehia txikiagoa nabaritzen dute, enpresa kontsolidatuekin alderatuta. Dena den, enpresa ekimenek kontsolidatuek baino zailtasun handiagoak dituzte kasuan kasuko produktua egiterakoan edo zerbitzua eskaintzerakoan teknologia berriak erabili ahal izateko. Era berean, jardunean dauden enpresek sortutako negozio edo enpresa berrien kopuruak gainbehera nabarmena izan zuen 2008an, aurreko urtean nahiko maila handia lortu eta gero.

Enpresa berrien hazkunde perspektiba ere nahiko mugatua da EAEn. Ekimen gehienek ez dute 5 urteren buruan lanpostu berriak sortzeko aukerarik ikusten eta honek ekintzailetasunak enpleguari egin dakiokkeen aportazioa asko mugatzen du. Honen harira, adibidez, aipatu behar da sortutako enpresa berrien % 4a baino gutxiagok aurrekusten duela bost urtetan 20 lanpostu edo gehiago izatea.

Ekintzaileen eta enpresa berrien profila aztertu eta gero, garrantzitsua da inguruneak ekimen berriak martxan jartzeko eskaintzen dituen baldintzak aztertzea. Azken finean, ekintzaile konkretu hauek ingurune espezifiko baten sortu dituzte euren ekimenak eta horrek sortutako enpresen profila nabarmen baldintza dezake. Beraz, atal honetan EAEko ingurunearen deskribapena egingo dugu ekintzailetasunaren ikuspegitik. Ekintzailetasunean adituak diren elkarriketatuek ingurunearekin erlazionatutako zenbait faktorek ekintzailetasuna bultzatzen dutela uste dute, beste faktore batzuk oztopo gisa jokatzen duten bitartean. Faktore positiboaren artean azpiegitura fisiko egokien disponibilitatea eta gobernuak enpresei laguntzeko erabilitako politikak daude, baita erakunde publikoek bultzatutako hainbat joko ere (hazkunde handiko enpresen bultzada, berrikuntzaren gaineko interesa, emakumeen ekintzailetasuna bultzatzea...). Oztopoen artean aldiz gizarte eta kultura arauak nabarmen dira: hezkuntza sistemak, ez hasierako faseetan, ezta azkenengoetan ere, ez du ekintzailetasunak behar dituen baloreen transmisio egoki bat egiten, unibertsitate eta enpresen arteko know-how-aren tranferentzia ere ez da egokiena eta gizarteko balore eta legeek ere ez dituzte ekintzailetasuna bultzatzeko baldintza egokienak eskaintzen.

Bukatzeko ekimen berrien finantzamenduari buruzko aipamena egingo dugu. Ekintzailetasuna aztertzen eta bultzatzen dutenek oso arduratuta egon ohi dira ekimen berriek izaten dituzten finantzazio arazoekin. Izan ere, ekintzaileek euren proiektua martxan jarri ahal izateko aurkitzen duten oztopo inportanteenetako bat diru-iturriak lortzearena izaten da eta arazo hau nabarmenagoa bihurtzen da egoera ekonomikoa negatiboa denean. GEM txostenaren arabera EAEko enpresa berriek 2008 urtean batez beste 63.206 eurotako hazi-kapitala behar izan dute.

Beharrezko diru kantitatea handia bada ere, Espainiako batez bestetik behera aurkitzen da (86.351 eurotakoa da Espainiako batez bestekoa). Hazi-kapitala lortzeko ekintzaile gehienek finantza iturri ezberdinetara jo ohi dute, nahiz eta oraindik ere autofinantzaketa den dirua biltzeko modurik ohikoena. Izan ere, GEM proiektuak adierazi bezela, 2008. urtean batez beste hazi-kapitalaren % 71,5a ekintzaileak berak inbertitu behar izan zuen. Kopuru hori handiena izan da 2004. urtetik hona eta beraz, badirudi autofinantzaketak aurrera egin duela. Hau da, EAEko ekintzaileek neurri txikiagoan jo dute kanpora euren negozioak abian jartzeko finantzamendu bila. Nolanahi ere, EAEko ekintzaileak baikorrak dira oraindik jarri duten kapitala berreskuratzeari begira: lautik ia hiruk etekin ekonomikoren bat lortzeko itxaropenarekin inbertitzen dute.

Bestalde, inbertsio ez-formala (*Business Angels-ak, familia, lagunak*) gero eta indar handiagoa hartzen ari da beste ekonomia batzuetako proiektu ekintzaileetan. EAEko kasuan ezin esan daiteke besteren proiektuetan inbertitzen duten populazio helduaren portzentajea altua denik (% 3,72koa baita), baina Europako beste herrialdeek erakusten duten portzentajetik ez dago oso urruti. Inbertitzaile ez formalaren profilari dagokionez zera esan daiteke: 40 urte inguruko gizasemea da, enplegatua eta batez beste 6.478 euro inbertitzen dituena.

4. METODOLOGIA ETA DATUAK

Ikerketa hau aurrera eramateko Global Entrepreneurship Monitor (GEM) proiektuaren barnean Euskal Autonomia Erkidegorako jasotako datuak erabili ditugu. GEM proiektua 1999 urtetik aurrera mundu mailako 56 herrialdetan ekintzailetasun tasa eta bere ezaugarriak aztertzen dituen proiektua da. EAE 2004. urtetik proiektu honetako partaide den arren, gure azterketarako 2006 eta 2007 urteetako datu eguneratuenak erabiliko ditugu.

Ikerketa honetarako datuen bilketa Opinómetro Institutuak egin izan du urtero eta 18-64 urte bitarteko EAEko biztanleriatik edizio bakoitzerako telefono bidez elkarrizketatutako 2.000 norbanakok osatutako lagina sortu du. Lagin horren konfiantza marjina % 95,5 da eta % $\pm 2,9$ ko lagin errorea du. Lagina lurralde historikoen eta generoen arabera esanguratsua dela esan beharra dago. 2006 eta 2007ko edizioetarako hau izan da lurralde historikoetan eta generoaren arabera erabilitako laginak daukan banaketa:

2. Taula: Laginaren ezaugarri orokorrak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Araba	277	287	564
Gipuzkoa	647	650	1.297
Bizkaia	1.096	1.043	2.139
Guztira	2.020	1.980	4.000

Iturria: Gem datu basea

Aipatu beharrekoa da ekintzaile tasak landa eremuan eta metropolietan kuantifikatzeaz gainera, ikerlan honetan hiru ardatz jorratuko ditugula. Lehendabizi, ekintzailearen profila aztertuko dugu; bigarrenik, sortutako enpresen profila; eta, azkenik, proiektu ekintzaileen inbertsiogileen profila. Azterketan barneratu aurretik interesgarria da GEM proiektuak kontzeptu horietako bakoitza nola definitzen duen jakitea.

GEM proiektuaren arabera, ekintzailea 0 eta 42 hilabete bitarteko merkatu esperientzia duen enpresa bateko jabea da. Definizio horren barnean autoenplegua ere kontuan hartua dago. Dena dela, GEM proiektuak ekintzailetasuna aztertzeko erabiltzen dituen parametroen artean lau ekintzaile mota ezberdintzen ditu: ekintzaile potentziala (enpresa sortzeko asmoa duena), hasten ari den ekintzailea (0-3 hilabeteko ibilbidea duen enpresa baten jabea), ekintzaile berria (3-42 hilabeteko ibilbidea duen enpresa baten jabea) eta ekintzaile kontsolidatua (42 hilabeteko ibilbidea baino gehiago duen enpresa baten jabea). Ikerketa honetan ekintzailearen definizio zabala hartu dugu eta ekintzailetzat enpresa sortu duen edonor hartu dugu (hasten ari den ekintzailea + ekintzaile berria + ekintzaile kontsolidatua). Era berean, analisi unitatea enpresa den kasuetan, sortutako edozein enpresa hartu dugu kontuan.

Azkenik, lan honek landa eremuko ekintzailetasuna eta metropolietako ekintzailetasuna konparatzen dituenek, beharrezkoa da GEM proiektuak ingurune bakoitzarentzat ematen dituen definizioak ezagutzea. Horrela, landa eremua 5.000 biztanletik beherako herriek osatzen dute, eta 5.000 biztanletik gorako herriek, aldiz, metropolia. Ezinbestekoa da aipatzea ekintzailea eta, ondorioz, bere enpresa metropolian edo landa eremuan kokatzeko erabilitako adierazlea ekintzailearen bizitokia dela eta ez enpresaren kokapena. Onartu behar da definizio horrek ikerketako konklusio batzuk baldintzatu ditzakeela, izan ere, beti ez dira berberak izango ekintzailearen bizitokia eta bere enpresaren kokapena. Bukatzeko, kontuan hartu behar da lan honetako konklusioak estatistika deskribatzailean oinarrituta daudela.

5. EMAITZAK

Atal honek estatistika deskribatzailean oinarritutako emaitzak laburbiltzen ditu. Hasteko, landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasun tasaren alderaketa egin dugu. Ondoren, ekintzaileen profila aztertu dugu eta hurrengo, sortutako enpresen profila eremu ezberdinen arabera. Bukatzeko, inbertsiogileen deskribapen laburra gaineratu dugu.

5.1. Ekintzailetasun tasen alderaketa

Ikerketa ekonomikoek diotenaren arabera, ekintzailetasun tasa ez da berdina izaten eremu geografiko guztietan. Lehendabiziko taulak agerian uzten duenez, EAEko biztanleria aktiboaren % 10,5 ekintzailea da, baina ekintzailetasun tasa ez da berdina landa eremuan eta metropolian. Landa ingurunean ekintzaile-

tasun tasa % 12koa da eta hiriguneetan, berriz, tasa hori % 10ekoa besterik ez da. Beraz, landa eremuko biztanleria erlatiboki zertxobait ekintzaileagoa dela ondoriozta dezakegu.

3. Taula: Ekintzailetasun taula eremuen arabera

	Landa eremua	Metropolia	Guztira
Ekintzailea	% 12	% 10	% 10,5
Ez-ekintzailea	% 88	% 90	% 89,5
Guztira	% 100	% 100	% 100

Iturria: GEM datu basea eta norberak egina.

Datuok beste ikuspegi batetik begiraturaz gero ere landa eremua ekintzaileen zat ingurune erakargarria dela baieztatu dezakegu. Biztanleria osoaren % 10,7 landa eremuan kokatzen da eta ekintzaile guztien % 12,2k hautatu du landa ingurunea bizitokitatzat (*ikus 4. taula*).

4. Taula: Biztanleria ekintzaile eta ez ekintzailearen kokapena eremuen arabera

	Landa eremua	Metropolia	Guztira
Ekintzailea	% 12,2	% 87,8	% 100
Ez-ekintzailea	% 10,5	% 89,5	% 100
Guztira	% 10,7	% 89,3	% 100

Iturria: GEM datu basea eta norberak egina.

Beraz, bi ikuspegi horiek kontuan hartuta, badirudi, erlatiboki, ekintzaileen ehuneko handixeagoa kontzentratzen dela EAEko landa eremuetan, euskal metropolietan baino.

5.2. Ekintzaileen profila

Landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasun tasak ezberdinak direla ikusi dugu, eta ekintzaileen profila ere ezberdina izan daiteke ingurunearen arabera. Hona hemen EAEko landa eremuan eta metropolian dauden ekintzaileen ezberdintasun nabariak (*ikus 5. taula*):

Generoari erreparaturaz gero, landa eremuak aukera gehiago eskaintzen dizkio emakume ekintzaileari metropoliak baino. Izan ere, landa eremuko ekintzaileen artean % 43 emakumezkoak dira eta metropolian % 38 da emakumezkoa.

Generoaren banaketa horrek, ziurrenik, sortutako enpresa motetan ere eragina izan dezake, GEM datuetan oinarritutako beste ikerketek emakumeek eta gizonzkoek sortutako enpresetan ezberdintasunak egon ohi direla erakusten baitute (adib. sektorea, hasierako inbertsioa) (Peña et al., 2008).

Sustatzailearen adina da ekintzaileen profila aztertzen duten ikerketek baloratzen duten beste faktore garrantzitsu bat. Kasu honetan, erdiko adin tartetean (35-44 eta 45-54 urte artean) ezberdintasun handirik nabarmendu ez arren, badira bi diferentzia esanguratsu. Landa eremua ez da ekintzaile gazteenentzat erakargarria (ez baitago 18-24 urteko ekintzailerik), baina, aldiz, ekintzaile nagusiek (55-64 urte bitartekoek) presentzia handiagoa dute landa eremuan, metropolian baino. Ezberdintasun horrek, aurretik aipatu bezala, eremu bakoitzean sortutako enpresa motetan nabarmen eragin dezake, alde batetik, gazteek enpresa bat sortzeko duten motibazioa nagusien ezberdina izan daitekeelako eta bestetik, sektore konkretu batzuetan (teknologikoetan kasu) ekintzaile gazteen presentzia nabarmenagoa izan daitekeelako.

Ikasketa mailari dagokionez, landa eremuan ekintzaileen banaketa nahiko orekatua dago ikasketa mailaren bat lortu dutenen artean (ikasketarik ez duten ekintzaileen presentzia nulua baita). Metropolian, bestalde, goi mailako ikasketak dituztenek eta ikasketa gabeek landa eremuan dutena baino presentzia handiagoa dute, eta horrek ere baldintza ditzake sortutako enpresen ezaugarriak. Logikoa dirudi goi mailako ikasketak dituzten ekintzaileak metropolian kokatu nahi izatea, giza kapital altua duten enpresek urbanizazio ekonomietatik onura handiak jaso ditzaketelako. Baina ikasketa gabekoentzat ere hiriak aukera gehiago eskain ditzake, giza kapital baxuko enpresentzat ere merkatu zabalagoa dagoelako. Adibidez, hirigunean aurki ditzakegu bai parke teknologiko batean jarduten duten ikertzaile ekintzaileak, baita bazar denda bat ireki berri duten txinatar ekintzaileak ere.

Errenta mailari begiratuta, bi alderdi aipagarri ikusten dira. Alde batetik, landa eremuan 600 eurotik beherako errenta dutenek metropolian baino presentzia handiagoa dutela –eta hori bi eremuen arteko bizitza maila ezberdinarekin egon daiteke lotuta– eta bestetik, hilean 2.400 eurotik gorako errenta duten ekintzaileen presentzia ere altuagoa dela landa eremuan. Egia da ezberdintasun horiek, aurrez esan bezala, eremu bakoitzeko ekintzailetasun motan eragin dezaketela, baina EAEko biztanleriaren bizitoki lehentasunekin ere erlazionatuta egon daiteke. Hau da, landa eremuan bizitza maila baxuagoa izan arren, errenta altua duten ekintzaileek landa eremura jotzen dutela bizitzera, bertako bizi kalitateaz gozatzen, nahiz eta gero lan beste ingurune baten egin².

Bestalde, etorkin kopuruak gizaratean gora egin duen heinean, ekintzaileen artean ere kanpotik etorritako norbanakoen presentzia gorakorra da. Espero bezala, etorkin portzentaje handiagoa dago metropolian, landa eremuan baino.

2. Ez da ahaztu behar GEM proiektuak ekintzailearen kokapenari buruzko galdera egiten duenean, ekintzailearen bizitokiari dagokiola eta ez enpresa kokatuta dagoen inguruneari.

5. Taula: Ekintzaileen ezaugarriak kokapenaren arabera

		Landa eremua	Metropolia	Guztira
Generoa	Emakumezkoa	% 43	% 38	% 39
	Gizonezkoa	% 57	% 62	% 61
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Adina	18-24	% 0	% 7,1	% 6,2
	25-34	% 13,7	% 19,6	% 18,9
	35-44	% 35,3	% 32,2	% 32,5
	45-54	% 23,5	% 26,7	% 26,3
	55-64	% 27,5	% 14,4	% 16,1
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Ikasketa maila	Ikasketa gabe	% 0	% 3	% 3
	Lehen hezkuntza	% 24	% 20	% 20
	Bigarren hezkuntza	% 29	% 22	% 23
	Ertainak	% 20	% 20	% 20
	Goi mailakoak	% 27	% 35	% 34
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Hileko errenta maila	< de 600 €	% 6	% 2	% 2
	600-1200 €	% 14	% 12	% 12
	1200-1800 €	% 22	% 19	% 20
	1800-2400 €	% 12	% 14	% 14
	> de 2400 €	% 23	% 17	% 18
	ED/EE	% 23	% 36	% 34
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Jatorria	Etorkina	% 6	% 8	% 92
	Bertakoa	% 94	% 92	% 8
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Business Angel-a da?	Bai	% 4	% 6	% 94
	Ez	% 96	% 94	% 6
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Ekintzaile izateko arrazoia	Aukera Hutsa	% 69	% 61	% 62
	Partzialki aukera	% 17	% 25	% 24
	Beharra	% 14	% 14	% 14
	Guztira	% 100	% 100	% 100

Iturria: GEM datu basea eta norberak egina

Ekintzaileak bere jarduera martxan jartzeko finantzazio behar handia izaten du. Normalean, autofinantzazioaz baliatzeaz gainera, ekintzaileek finantza erakundeetara jo dezaketen arren diru eske, azken aldian Business Angels-ek indar berezia hartu dute finantza iturrietan. Ekintzaileak eurak ere izan daitezke Business Angels-ak, beste proiektu batzuetan inbertitzen duten heinean. 3. taulan ageri diren datuen arabera, inbertsiogilearen figura hedatuago dago metropoliko ekintzaileen artean, landa eremukoaren artean baino. Horrek nolabait, metropoliko ekintzailetasuna profesionalizatuagoa edo garatuagoa egon daitekeela iradokitzen du, ekintzaileak ez baitu bakarrik bere proiektua martxan jartzen, beste proiektu batzuetan sinetsi eta dirua ere inbertitzen du.

Bukatzeko, ekintzailea enpresa sortzera eraman duen arrazoiari erreparatu diogu. Batetik, landa ingurunean presentzia handiagoa dute aukera hutsari erantzunez enpresa sortzen duten ekintzaileek (% 69), metropolian baino (% 61). Bestetik, bi eremuetan beharregatik beraien proiektua martxan jarri dutenak ekintzaileen % 14 dira.

5.3. Sortutako enpresen profila

Aurreko atalean argi ikusi da ekintzaileen profila aldakorra dela eremuaren arabera. Ekintzaileen arteko ezberdintasun horiek eta eremu bakoitzak dituen ezaugarri sozio-ekonomikoen eragin nabarmena izan dezakete eremu bakoitzean ekintzaileek sortzen dituzten enpresen ezaugarrietan. 6. taulak landa eremuan eta metropolian sortzen diren enpresen ezaugarriak konparatzen ditu, lau puntu kontuan hartuz: sektorea, berrikuntza, nazioartekotzea eta tamaina.

Sektoreari dagokionez, landa eremuan erauzte sektoreko enpresek eta eraldatze sektorekoek pisu handiagoa dute metropolian baino. Enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresek, aldiz, askoz presentzia handiagoa dute metropolian. Horrek lotura izan dezake teoria tradizionalak enpresen kokapenari buruz esaten duenarekin, alegia, enpresa mota batzuk (adib. erauzte edo eraldatze sektorekoak) inputak dauden inguruan kokatzen direla, landa eremuan adibidez, eta kontsumitzaileei eta beste enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkieten jarduerak bezero kopuru handiena (kontsumitzaileak eta enpresak) dagoen inguruneetan egon nahi izaten dutela, metropolietan gehienbat.

6. Taula: Sortutako enpresen ezaugarriak kokapenaren arabera

		Landa eremua	Metropolia	Guztira
Sektorea	Erauzte sektorea	% 10	% 5	% 5
	Eraldatze sektorea	% 37	% 33	% 34
	Enpresa zerbitzuak	% 14	% 25	% 24
	Kontsumitzaileei zuzendua	% 39	% 37	% 37
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Teknologi maila	Baxua/ nulua	% 92	% 93	% 93
	Ertaina	% 6	% 3,5	% 4
	Altua	% 2	% 3,5	% 3
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Teknologia berrien erabilera	Bai	% 2	% 1	% 1
	Ez	% 98	% 99	% 99
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Estrategia berrien erabilera	Bai	% 8	% 12	% 12
	Ez	% 92	% 88	% 88
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Intentsitate esportatzailea	% 75-100	% 2	% 5	% 5
	% 25-75	% 9	% 10	% 10
	% 1-25	% 19	% 21	% 21
	Ezer ere ez	% 70	% 64	% 64
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Jabe kopurua	1	% 45	% 52	% 51
	2	% 37	% 27	% 28
	3	% 12	% 12	% 12
	4 edo gehiago	% 6	% 9	% 9
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Tamaina (Eguno langile kopurua)	Langile gabe	% 53	% 47	% 47
	1-5 langile	% 27	% 39	% 38
	6-19 langile	% 13	% 13	% 13
	20+ langile	% 7	% 1	% 2
	Guztira	% 100	% 100	% 100
Hazkunde espektatibak (langile kopurua 5 urtera)	Langile gabe	% 41	% 30	% 31
	1-5 langile	% 41	% 45	% 45
	6-19 langile	% 18	% 21	% 20
	20+ langile	% 0	% 4	% 4
	Guztira	% 100	% 100	% 100

Iturria: GEM datu basea eta norberak egina

Berrikuntzari erreparatuz, EAEn ez dira teknologi maila altuko enpresak gailentzen. Hala ere, landa eremuan goi mailako teknologia aplikatzen duten enpresa berrien ehunekoa metropolian daudenena baino baxuagoa da (2 versus % 3,5). Era berean, estrategia berrien erabilera (produktu berria merkatu ezagunera zuzentzean datzan estrategia edo produktu bera merkatu berri batera zuzentzean datzan estrategia) aitortzen duten enpresen presentzia ere baxuagoa da landa eremuetan (% 8), metropolian baino (% 12). Aitzitik, teknologia berriak erabiltzen dituztela aitortzen duten ekintzaileek landa eremuan metropolian baino pisu pixka bat handiagoa dute.

Laburbilduz, berrikuntzarekin erlazionatutako adierazleak aztertuz, badirudi enpresa berritzaileentzat erakargarriagoa dela metropolia landa eremua baino. Baliteke enpresa horientzat metropolia kokapen egokiagoa izatea, bertan urbanizazio ekonomia handiagoak lor ditzaketelako eta horrek, aglomerazio teoriari jarraiki, abantaila nabarmenak eskaini dakizkiokeelako enpresa sortu berriari.

Enpresa berriaren nazioartekotzea honek atzerrian dituen bezeroen ehunekolari erreparatuz kalkulatu du GEM proiektuak. Egia da EAEko enpresa berriek ez dutela nazioartekotuta jaiotzeko joera handiegirik, baina joera etxeak askoz nabarmenagoa da landa eremuko enpresen artean, metropoliko enpresen artean baino. Izan ere, bezeroen % 75etik gora kanpoan dituzten enpresen pisua landa eremuan oso baxua da (% 2 besterik ez) eta gainera, bezero atzerriarekin inolako harremanik ez duten enpresen presentzia landa eremuetan metropolian baino altuagoa da (% 70 vs % 64).

Sortutako enpresaren tamainari dagokionez ere ezberdintasunak daude. Tamaina hainbat adierazlerekin neur daiteke (adib. jabe kopurua edo langile kopurua) eta erabilitako adierazlearen arabera, emaitza ezberdinak lor daitezke. Jabe kopuruari begiratuta, adibidez, 4 jabe baino gehiago dituzten enpresen pisua baxua da landa eremuan (% 6); metropolian, berriz, % 9 da. Hala ere, aitortu behar da jabe bakarreko proiektuen pisua ere metropolian baino baxuagoa dela (% 45 vs. % 52).

Egungo langile kopurua tamainaren adierazletzat hartuta, langile gabeko enpresen ehunekoa altuagoa da landa eremuan metropolian baino, baina, aldi berean ere, egia da 20 langiletik gorako enpresen presentzia askoz handiagoa dela landa eremuan (% 7 vs % 1). Metropolian, 1-5 langile bitarteko enpresek pisu berezia dute.

Azkenik, hazkunde espektatibei dagokienez, landa eremuan espektatiba baxuko enpresak dira nagusi. Eragin ekonomiko handia izan dezaketen enpresek metropolia erakargarriago aurkitzen dute landa eremua baino. Baliteke enpresa horiek urbanizazio ekonomiez aprobeztatu nahi izatea euren garapena hobetzeko.

5.4. Inbertsiogileen profila

Ekintzaileak proiektu bat martxan jartzerakoan finantzazio iturri nahikoa aurkitzea izaten da zailtasun handienetako bat. Diru kantitate handia behar izaten da enpresa bat martxan jartzeko eta maiz ez da erraza izaten behar besteko dirua batzea. Atal honek hasierako inbertsioaren eta erabilitako finantza iturrien balorazio bat egiten du, kokapenaren ikuspuntutik.

7. taulako datuek erakutsi bezala, EAEn batez beste 70.768 euro behar izaten ditu ekintzaileak proiektua martxan jartzeko. Hala ere, landa eremuko enpresek behar duten inbertsioa baxuagoa da, batez bestekoa ez baita 49.158 euro baino altuagoa. Metropolian sortu diren enpresen batez besteko inbertsioa hasierako momentuan 73.600koa izan da. Hainbat arrazoik azal dezake ezberdintasun hori (adib., sektorea, enpresaren tamaina) baina lurrak EAEn duen prezioa izan daiteke, gure usteetan, arrazoi pisutsuenetako bat: lurrak askoz prezio baxuagoa du landa eremuan, metropolian baino eta horrek ekintzaileak egin beharreko hasierako inbertsioa asko garestitu dezake.

7. Taula: Hasierako inbertsioa eta finantza iturriak kokapenaren arabera

		Landa eremua		Metropolia		Guztira	
		Batez bestekoa	Desb. tipikoa	Batez bestekoa	Desb. tipikoa	Batez bestekoa	Desb. tipikoa
Hasierako inbertsioa		49.158	39.142	73.600	91.602	70.768	87.428
Finantza iturriak	Ekintzailea %	% 50	% 51	% 37	% 48	% 38	% 49
	Gertuko Familiak %	% 9	% 30	% 11	% 32	% 11	% 31
	Bestelako familia %	% 9	% 30	% 3	% 16	% 4	% 19
	Lankideak %	% 9	% 30	%4	% 20	% 5	% 22
	Lagunak %	% 36	% 51	% 31	% 46	% 31	% 47
	Ezezagunak %	% 10	% 32	% 4	% 20	% 5	% 22
	Finantza Erakundeak %	% 9	% 30	% 24	% 43	% 22	% 42
	Erakunde publikoak %	% 9	% 30	% 15	% 36	% 14	% 35
	Besterik	% 0	% 0	% 13	% 33	% 11	% 31

Iturria: GEM datu basea eta norberak egina

Inbertsiogileei begiratu gero ere ezberdintasunak nabarmenak dira. Landa eremuko ekintzaileek familia eta lagunengana gehiago jotzen dute finantzazio eske, metropoliko ekintzaileek baino. Metropoliko ekintzaileek, aldiz, finantza erakundeetara eta erakunde publikoetara jotzeko joera handiagoa dute. Honek iradoki dezake, business angelsen presentziarekin gertatzen zen bezala, metropolian ekintzailatasun kultura profesionalizatuagoa dagoela landa eremuan bai-

no. Azken batean, landa eremuko ekintzaileek orokorrean, ez EAEn bakarrik, zailtasun handiagoak dituzte finantza iturri profesionalizatuetatik dirua lortzeko (Meccheri eta Pelloni, 2006).

6. KONKLUSIOAK

Gutxi ikertu izan da literatura akademikoan metropoli eta landa eremuetako enpresa ekintzailetasunaren arteko antzekotasuna. Horrexegatik, gai arrotz hau gehixeago ezagutzearren, artikulua honen helburua bikoitza izan da. Alde batetik, EAeko landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasun tasak kalkulatu eta konparatu ditugu, eta bestetik, landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasunaren arteko konparaketa egin dugu, hiru ardatz jorratuz: (a) landa eremuko eta metropoliko ekintzaileen profilaren konparaketa, (b) landa eremuan eta metropolian sortutako enpresen konparaketa eta (c) landa eremuko eta metropoliko ekintzaileek erabiltzen dituzten finantza iturrien arteko konparaketa.

Landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasun tasari dagokionez, emaitzek EAeko landa eremua ere ekintzaileentzat erakargarria dela erakutsi dute, are gehiago, erlatiboki ekintzaile ehuneko handixeagoa kontzentratzen da euskal landa eremuan, metropolian baino.

Landa eremuko eta metropoliko ekintzailetasunaren konparaketari dagokionez, berriz, datuek zera adierazten dute: metropoliko ekintzailetasuna askoz dibertsoagoa dela landa eremuko ekintzailetasuna baino. Bai landa eremuan eta baita metropolian ere eguneroko beharrei (ekintzailearen beraren beharrei zein merkatuko beharrei) erantzuna ematen dieten enpresa berriak sortzen dira, baina metropolian bi proiektu ekintzaile mota daude, landa eremuetan hainbesteko presentzia ez daukatenak:

- (a) Eragin ekonomiko handia izan dezaketen proiektuak. Hau da, maila teknologiko garatua dutenak eta nazioartekotze maila altukoak. Aldi berean, estrategia berrien erabilera bultzatzen dutenak eta enpresa handiak ez izan arren, hazteko itxaropen handiagoa dutenak. Normalean enpresa mota hauek ikasketa maila altukoek, gazteek eta kultura inbertsiogilea garatuagoa duten ekintzaileek (Business-angelsek) sortu ohi dituzte. Datuek dioten bezala, profil horretako ekintzaileen presentzia handiagoa da metropolian landa eremuan baino.
- (b) Premiazko beharrezkoak duten kolektiboen ekintzailetasuna. Hau da, ikasketarik gabekoen, etorkinen eta beharrezkoan dauden gazte ekintzaileen presentzia handiagoa da metropolian landa eremuan baino.

Azkenik, metropolian ekintzaileek hain beharrezkoak duten finantza sarea garatuagoa dagoela ondoriozta daiteke. Alde batetik, business angels-ak diren ekintzaileen presentzia altuagoa da eta bestetik, metropoliko ekintzaileek finantza iturri profesionaletara jotzeko ohitura handiagoa dute landa eremuko ekintzaileek baino eta horrek hainbesteko onurak ekar ditzakeen gizarte ekintzailea garatzen lagun dezake.

Artikulu honek, bere xumetasunean, ekarpen garrantzitsuak ekar dakizkieke komunitate akademikoari, ekintzaileei eta batez ere, politika publikoko eta eskualdetako garapen zentroetako arduradunei.

Komunitate akademikoari dagokionez, sakon jorratu gabe dagoen gai baten inguruan ebidentzia berriak eskaintzen ditu. Orain arteko lanetan ez bezala, analisia herrialde txiki baten (EAEn) kokatzeak, non landa eremuaren eta metropoliaren artean distantzia nabarmenik ez dagoen, berritasuna eman dio literatura ekonomikoari. Ekintzaileentzako, aldiz, argigarri izan daiteke bere enpresa non kokatu pentsatzeko orduan. Eta azkenik, politika publikoetako eta eskualdetako garapen zentroetako arduradunentzat programa bereziak antolatzeneko orduan lagungarria izan daiteke, batez ere, programa konkretu batzuen merkatu potentziala (adib. eragin handiko ekintzaileak eta beharizan handian daudenak) metropolian kokatua baitago.

Izan ere, azken bolada honetan, XXI. mendeko lehen hamarkadan murgildurik, berrikuntzan eta sormenean oinarritutako ekonomia bat eraiki nahi dela esan ohi da agintari ezberdinen ahotik. European, eta Euskal Herrian ere, industrialki garatuenak diren eskualdeen erronka nagusienetako bat egun ingurune berritzaile eta ekintzaile bat sustatzea omen da, besteak beste, herri baten lehiakortasun eta bere biztanleen ongizate maila hobetze arren. Ekonomia globala zabaltzeak eta egungo iraultza teknologikoa abiatzeak eraldaketaren garaia ekarri du. Eraldaketa horretan, Europak 2010. urterako helburu estrategiko moduan, *jakintzan oinarritutako munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea* hartu zuen helburu, *modu iraunkorrean ekonomikoki hazteko gai izango dena, enplegu gehiagorekin eta hobeekin eta gizarte kohesio handiagoarekin*³. Ordudanik, berrikuntzan eta jakintzan oinarritutako egiturarako eraldaketa ekonomiko eta soziala Europako gobernuen lan agenda nagusi bihurtu da, bai herrialdeetan eta bai herrialde barruko eskualdeetan.

EAEk, Europak 2010. urterako definitutako helburu komun hori lortzeko bidea jada hasi du. Ahaleginak ahalegin, oraindik ere Gizarte industrialetik berrikuntzan eta jakintzan oinarritutako Gizarte berrira igarotzeko bidean gaude. Berrikuntza alorrean, oraino ez dugu Europarekin bat egin berrikuntzako jardueretan (egun dauzkagun European Innovation Scoreboard-eko aldagaiek hala diote behintzat), eta horrenbestez, behar-beharrezko ditugu eraldaketa prozesu horretan aurrera egiteko lanabesak.


Edonola, berrikuntzan inbertitutakoa jarraian errentabilizatu egin behar da merkatuan ahalik eta etekin handiena lortuz. Hau da, ez da nahikoa eskualde berritzailea izatea, baizik eta, berrikuntza gaitasuna areagotzeko egiten den esfortzua behar bezala merkatuan errentabilizatzea. Azken honek emango baitio azken finean eskualde bateko berrikuntza sistemari aurrera egiteko behar duen kemen eta abilezia. Beraz, bigarren urrats hau emateko, berrikuntza errentabilizatzearena hain zuzen, ekintzailetasunerako ekosistema egoki bat edukitzea

3. Lisboako Europako Kontseilua, 2000ko martxoaren 23a eta 24a. http://www.europarl.europa.eu/summits/lis1_es.htm.

ezinbestezkoa jotzen dugu. Prozesu Schumpeteriano bat lortzen den heinean, zeinetan baliozko berrikuntzak bere saria merkatuan eskuratzen duen, eskualde baten garapena azkarragoa eta sendoagoa bilakatuko dela uste dugu. Beraz, berrikuntza eta enpresa ekintzailetasun arrakatsua garapen eta ongizate hobea lortzeko ikur garrantzitsutzat jotzen ditugu.

Arrazoi honexegatik, hainbat politika publikoren bidez, EAEko gobernu arduradunek ekimen ekintzaileei laguntza luzatu izan diete. Zehazki, azken urteetan diseinatutako politiken artean, bai Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako 2006-2009 Planak eta bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2010 Planak apustu sendoa egin dute ekimen berritzaileak sustatzeko, teknologian eta jakintzan oinarrituak, azkar hazteko eta mundu globalean lehiatzeko gai izango direnak (*Ikus 1. irudia*).

1. Irudia. Ekonomia berri baterantz begira



Iturria: Hazteko Potentzial Handiko EAEko Jarduera Ekintzailea

Gure iritziz, jarduera ekintzailea jakintzan oinarritutako ekoizpen egitura sortzeko trakzio elementuetako bat da. Enpresa hauek bai landa nola metropoli eremutan aurki daitezkeen arren, badirudi gure ikerketa emaitzen arabera, EAEn behintzat bertako metropoliak ingurune aproposagoa eskaintzen duela hazkunderako gaitasun handiagoa izan dezaketen enpresa berriak erakarri eta garatzeko.

1980ko hamarkadaren erdialdetik aurrera sortutako hazkunde endogenoen teoriekin, jarduera ekintzailea epe luzeko hazkunde ekonomikoaren iturburu eta dinamikaren elementu arduradunetako bat zela esaten hasi zen⁴. Ordudanik,

4. Teoria horien bidez, hazkunde ekonomikoaren erduei bi faktore berri erantsi zitzaizkien, ekonomiarik hazkunde etengabea ekarriko diotenak, kanpoko faktoreetara jo gabe. Alde batetik, teknologia berrien garapena eta, bestetik, giza kapitala. Azken kasu horretan, ekintzailearen arabera izango da hazkunde ekonomikoa, ekintzailea giza kapitalaren barruan hartuta.

hainbat lan enpirikok egiaztatu dute gaitasun ekintzailearen eta hazkunde ekonomikoaren artean dagoen harremana eta ikusi dute harreman hori positiboa dela herrialde eta eskualde garatuenetan⁵.

Fenomeno ekintzaileaz gainera, herrialde edo eskualde baten berritzeko gaitasuna ekonomiaren lehiakortasun mailari eutsiko dion oinarrietako bat da⁶. Horregatik, azken urteetan enpresa ekintzaile berriak enpresak sortzeko politika publikoen interesgune nagusi bihurtu dira, Administraziooko maila guztietan (Europa, herrialdea, eskualdea eta metropolia bera).

Enpresa berritzaile berriak aztertzeko interesaren arrazoia da jarduera ekintzaile orok ez diola hazkunde ekonomikoari intentsitate bereko ekarpena egiten. Ildo horretatik, zenbait lanek erakutsi dute azkar hazteko potentziala⁷ eta nazioartekotzeko gaitasuna⁸ duten enpresa berriak egotea hazkunde ekonomikoaren baldintzatzailetako bat dela, bai trantsizioan dauden herrialdeetan eta bai herrialde garatueta.

Hazkunde azkarreko enpresa berriak jarduera ekintzaile osoan nahiko ehuneko txikia dira; baina, hala ere, gainerako ekimenek baino ekarpen esanguratsuagoa egiten diote enplegu sorrerari. Enpresa horiek egotea ingurune baldintzen kalitateak (adibidez, azpiegiturak, teknologiak, arrisku kapitala egotea, etab.) eta ekintzailearen hezkuntza eta errenta maila hobeak (Gizartean giza kapitalaren eta ongizatearen maila) baldintzatzen dute. Horrenbestez, hazkunde azkarreko jarduera ekintzaileerako joera handiagoa dago errenta handiko herrialdeetan eta eskualdeetan⁹.

Baina, nolakoa da egoera, (EAE bezalako) eskualde garatu baten barruko hiri edo herri aniztasuna kontuan hartuz gero? Metropoli eta landa eremutako ezber-

5. Jarduera ekintzailearen eta herrialdeen eta eskualdeen hazkunde ekonomikoaren azterketari egindako ekarpen nagusien artean azken urteetan GEM proiektuak aurkeztutako txostenen emaitzak daude. Txosten horiek kontuan hartuta, errenta txikiko herrialdeetan, jarduera ekintzaileak harreman negatiboa du biztanleko sarrerekin; errenta handiko herrialdeetan, berriz, harreman hori positiboa da. Egia da biztanleria helduaren artean jarduera ekintzailearen tasak guztira handiagoak direla errenta txikiko herrialdeetan errenta handiko herrialdeetan baino; baina, aldi berean, errenta txikiko herrialdeetan beharraren eraginez jarduera ekintzailean hasten direnen ehunekoa handiagoa da. Horren ondorioz, errenta txikiko herrialdeetan sortutako enpresa gehienak ez dira sendotzera iristen, eta kasu askotan, moteldu eta ez dira hazten. Harreman horren eraginaren inguruko azalpen zehatzagoa hurrengo lanean kontsulta daiteke: Stel, A. van; Carree, M. eta Thurik, R. (2005). "The Effect of Entrepreneurial Activity on National Economic Growth". *Small Business Economics*, 24. alea, 3. zk., 311-321. orr.

6. Jarduera ekintzaileak eta berrikuntzak, biek batera, hazkunde ekonomikoan duten eragina aztertzen duen lan gutxi dago. Horietako bat da hurrengoa: Wong, P. K.; Ho, Y. P. eta Autio, E. (2005). "Entrepreneurship, Innovation and Economic Growth: Evidence from GEM data". *Small Business Economics*, 24. alea, 3. zk., 335-350. orr.

7. Hazkunde azkarreko enpresek hazkunde ekonomikoan duten eraginaren inguruko ebidentziak hurrengo lanean aurki daitezke: Stam, E.; Suddle, K.; Hessels, J. eta Stel, A. van (2006). "Los emprendedores con potencial de crecimiento y el desarrollo económico: Políticas públicas de apoyo a los emprendedores". *Economiaz*, 62. zk., 124-149. orr.

8. Jarduera ekintzaile esportatzailearen eta hazkunde ekonomikoaren arteko harremana orain dela gutxiok lan batean erakusten da: Hessels, J. eta Stel, A. van (2007). "Export Orientation among New Ventures and Economic Growth". ERIM Report Series Number ERS-2007-008-ORG.


9. GEM proiektuaren barruan, xehetasun gehiago kontsulta daitezke horrelako enpresen inguruan, Autioren hazkunde azkarreko jarduera ekintzailearen inguruko txosten orokorrean (2007).

dintasunak esanguratsuak al dira ekintzailetasun mota bat edo bestea sustatzeko (azpiegiturak, programak, ...)? Hauxe izan da, izan ere, artikuluko honetan erantzuten salatu garen galdera.

Ingurunearen kalitatearen eta teknologien garapen handiagoaren eraginez, herrialde eta eskualde aurreratuetakoen enpresak teknologian oinarritzen diren sektoreetan espezializatzen dira. Sektore horietan, hazkundea eta nazioartekotzea bideragarriak ez ezik (adibidez, atzerriko merkatu berrietan sartzeko aukera handiagoak, produktua haietan berritzailea delako eta lehiakide gutxi daudelako), zenbaitetan bizirik irauteko *sine qua non* baldintza ere bada (adibidez, eskala ekonomia lortzeko beharra, I+Gko gastua amortizatu ahal izateko). Nolanahi ere, nahiz eta oinarri teknologikoko enpresak izan alderdi horretan gehien nabarmentzen direnak, beharrezkoa da beste mota batzuetako enpresak azkar haztera eta behar baino lehenago nazioartekotzera bultzatzen dituzten arrazoiak ere indartzea.

Jakintzaren Gizarterako bidean, beharrezkoa da berritzaileak izateaz gainera, azkar hazi eta nazioartekotzeko gai izango diren enpresa berrien sorrera sustatzea. Hazterakoan, enpresa berriek enplegua sortzen dute, baina bestelako etekinak ere sortzen dituzte, jakintzarekin eta berritzeko gaitasunarekin lotuak. Bestalde, nazioartekotzearen bidez, enpresa berriek beren baliabideak eta gaitasunak handitzen dituzte, munduan punta-puntako jakiteetara eta teknologietara iristeko bidea baitute. Baina non, zein eskualdeetan, aurkitzen dira enpresa hauek EAEn (landa eremutan, metropoli eremutan)? Eta eskualde horiek, halako hazteko ambizioa duten enpresa berritzaile eta globalak sortzeko inguru aproposagoa eskaintzen al dute?

2. Irudia. Enpresa Berritzaile Berrien Kokapena XXI Gizaldiko Lehen Bosturtekoan




Iturria: Hazteko Potentzial Handiko EAeko Jarduera Ekintzailea

EAEko metropoli nagusien inguruan, hain zuzen, lurralde historiko bakoitzaren hiriburu inguruan I+G+Bn inbertitzen duten enpresa kopuru handiena kontzentratzen da, hainbat datuk diotena aintzat hartuz. 2. Irudiko eremu edo eskualde ilunenak hala adierazten dute. Unibertsitateak, Parke Teknologikoak, ikerketa zentro nagusienak bertan, lurralde historikoen hiriburu inguruan aurkitzen dira. Aldi berean, erakunde publikoek sustatutako proiektu ekintzaile eta berritzaileak laguntzeko programa eta zenbait azpiegitura (CEI direlakoak adibidez) eremu horietan kokatzen dira ere. Arrisku kapitaleko zenbait enpresa nagusiek, hirigunetan dute bere kokapena. Beraz, ez da horren harritzekoa, metropoli barru eta hurbileko inguruan, eragin ekonomiko nabarmena eduki dezaketen proiektu ekintzaileak aurkitzea.

Enpresa ekintzailetasun sendo bat garatzeko ekosistema egoki bat eraikitze-ko zantzuak daukagu, baina oraindik ere, beste bazterretako zenbait eskualdeetan ikus daitekeen dinamika ez dugu lortu EAEn. Cambridge Erresuma Batuan, Austin Texas-en, Sophia Antipolis Frantzia, etab., ez dira gauetik egunera sortu eta eraldatutakoak. Inguru hauen dinamika eta hazkundera, urteetan zehar egindako lanaren emaitza da. Metropoli ospetsu hauetako kudeatzaileek eta agente ezberdinek, proiektu ekintzaile eraginkorrak sustatzeko azpiegitura egokia eraikitzen asmatu dute, hala nola, bertako (eta nazioarteko) agente ekonomiko ezberdinen arteko harremanak estutzen eta areagotzen ahalegin nabarmena egin dute urteetan zehar. Hausnarketa hau 3. Irudian jaso dugu eta bertan ekosistema horrek eduki beharreko gutxieneko agente ezberdinen partaidetza azpimarratzen da, eta halaber, agente ezberdin horien artean bultzatu beharreko harremanak. Harreman estu hauek, espazio geografiko zehatz batean (metropoli baten inguruan adibidez) bildu eta garatu izan dira lehenago aipatutako adibideetan. Metropoliak, landa eremu baten aldean, ekosistemaren gutxieneko masa kritiko bat biltzeko aukera luzatzen du, eta aldi berean, agente ezberdinen artean (ekintzaileak, inbertsoreak, sozio estrategikoak,...) harremana estuagoa izan dadin esparru mugatu bat eskaintzen du.

Literaturarekin bat, jarduera ekintzaile berritzaileak eta hazteko eta nazioartekotzeko potentziala duenak inguruneko baldintza bereziak behar ditu. Funtsean, inguruak ekintzaileari laguntza eskaintzeko sarea behar du, eta sare horretan espiritu ekintzailea eta berrikuntza indartuko duten elementu guztiak orkestratuko dira. 3. irudian ikus ditzakegu zein diren sare horren osagaiak: lehenengoa, ekintzailea (giza kapitala, bertakoa zein atzerrikoa); bigarrena, *venture capitalists* eta *business angels* deitutakoak (proiektu ekintzaileak abian jartzeko finantzaketa); hirugarrena, ekintzaile izateko gai diren enpresa sendoak (*intrapreneurship* edo enpresen jarduera ekintzailea); laugarrena, Unibertsitatea eta ikerketa zentroak (enpresa eta teknologiaren alorreko jakintzaren sortzaileak); bosgarrena, Gizarte Kapitalaren beste zenbait elementu (arriskuaren kultura eta enpresen porrota onartzeko kultura sortuko dutenak esaterako); eta seigarrena, Administrazioa (ingurunea egokitzeaz arduratuko dena: azpiegiturak, legeak, hezkuntza sistema...).

3. Irudia. Enpresa EkintzailetasunEraginkorra Garatzeko Ekosistema



Iturria: Hazteko Potentzial Handiko EAEko Jarduera Ekintzailea

Orain aurkezten ari garen azterketan egindako diagnostikoaren arabera, EAEko enpresa egituran pisu txikiak dute azkar hazten eta nazioartekotzen diren enpresa berritzaileek. Ez hori bakarrik, baizik eta, landa eremuetan pisu hori are txikiagoa dela esan genezake. Beraz, jakin badakigu, hazkunde handia duten eta mundu globalean lehiatzen diren enpresa berritzaileen ehuneko oso txikia dela. Gaur egungo agintarien erronka interesgarri bat portzentaia hau handitzeko neurriak erabaki eta ezartzea izan beharko luke. Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2010 Planak behar hori aitortzen du eta oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzeko apustua egiten du, presentzia global indartsua izango dutenak. Apustu horrekin EAE "Europar berrikuntzaren erreferentzia" izatea lortu nahi da eta horretarako 2010. urterako I+Gko gastua BPGren % 2,25era handitzea espero da. Egia da I+Gko jarduerak egiten dituzten enpresa gehienek ezaugarrietako bat tamaina handia dela, baina badirudi tamainarekin harreman hori ez dela lineala¹⁰. Jakintzan oinarrituko den euskal gizarte ekintzailearen protagonistak hazteko eta nazioartekotzeko potentzial handiko enpresak izan behar dira. Hazi eta nazioartekotu nahi duten enpresa berritzaile eta teknologikoei beren sarreraren zati handi bat produktu berriak sortzeko eskaintzen diote, I+Gko gastuaren bidez.

Egia da, bestalde, berrikuntzako jarduerak egiten dituzten enpresen ehuneko azken urteetan gorantz doala, baina enpresa horiek ez dute behar den mai-

10. Navarro, M.; Buesa, M. *Sistema de Innovación y Competitividad en el País Vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003.

lan lortzen berrikuntzako ahalegin horiek merkaturatzen diren produktu berritan bilakatzea. Ez hori bakarrik, EAEko patente ekoizpena ez da bereziki esanguratsua. Ildo honetatik pentsatuz gero, enpresa teknologiko berriak sortzen badira ere, oraingoak baino nazioartekotzeko potentzial handiagoa beharko lukete. Hauxe da etorkizunari begira metropoli eremutan kontzentratzen diren hainbat enpresek burutu beharreko estrategia eta berrikuntzan inbertitzen jarraitzeko egin beharreko ibilbidea (Erakundeetako laguntzen dependentzia ahalik eta gehien gutxituz). Enpresa arrakastatsuenak esenplu bezala erabili beharko lirateke euskal gizartean, eta esenplu bikain horiek epe ertainean enpresa ekintzailetasunerako ekosistemaren dinamika bizkortzen lagunduko luketela uste dugu. Enpresa gutxi batzutatik abiatuz, ekintzaileek eta inbertsoreek esperientzia bereganatzen doazen heinean, ekosistemak metropoli eta landa eremuko mugen gainetik hobe funtzionatu ahal izango luke. Baina, bide luzea egiteke dago oraindik.

Bestetik, lehen urteetako hazkunde eta nazioartekotze prozesuan arrakasta lortu duten ekosistemako enpresa ekintzaileen kopurua handitu ahala, gizartean oihartzun bat zabaldu ahal izango da. Enpresa ekintzaile berritzaile eta nazioartekoa izatea hobe baloratu ahal izango da gure biharko gizartean. Honek, hazteko potentziala duten proiektu ekintzaile berriak bultzatzeko prest dauden gazte gehiago erakar ditzake. Azken finean, ekintzailetasun ekosistemak Giza Kapital aberats bat garatzen lagunduko luke, ekonomia eta gizarte balore berriak garatuz, ekonomiaren lehiakortasun estadio berri batera gerturatzen lagunduko gintuena.

Hala ere, artikulu honetan lortutako konklusioak bere xumetasunean ulertu behar direla kontuan hartu behar da. Etorkizunean komeniko litzateke datu gehiagorekin, analisi enpiriko garatuagoa egitea, desberdintasun horiek mantentzen diren ikusi eta landa eremuko ekintzailetasuna eta metropoliko ekintzailetasuna faktore ezberdinek eragiten duten ulertzeko. Izan ere, EAE bezalako lurralde geografiko batean, ekintzailetasun mota ezberdinetako oreka aurkitu beharko da (hazkunde gabe, hazkunde txiki eta hazkunde handiko proiektu ekintzaileak sustatu daitezkeen), ekosistema egoki bat eraikiz, eta landa eremu nola metropoliek eskaintzen dituzten abantailaz baliatuz. Ikerketa lan honetan, egun, EAEko enpresa ekintzailetasun alorrean, landa eremu eta metropolitano aurki daitezkeen ezaugarrien artean desberdintasunak egon badirela ikusi dugu. Desberdintasun hauek ordea, euskal ekosistema sendo bakar bat osatzeko oztupo bat ez dira ustez; are hobe, landa eremu eta metropoli berezitasunak enpresa ekintzailetasunerako euskal ekosistema aberasten duen dibertsitate eta konplementaritate ikur dira.

BIBLIOGRAFIA

- AUDRETSCH, D.B. (2007). *Entrepreneurial Society*, Oxford University Press.
- BOSMA, N.; JONES, K.; AUTIO, E.; LEVIE, J. (2008). Global Entrepreneurship Monitor Babson Collegek eta London Business School-ek eta Global Entrepreneurship Research Consortium (GERA)-ek editatua.
- BUSTOS GISBERT, M.L. (1993). "Las teorías de localización industrial: una breve aproximación" *Estudios Regionales*, 35. zk., 51-76. orr.
- DURANTON, G.; PUGA, D. (2000). "Diversity and specialization in cities: Why, where and when does it matter?" *Urban Studies*, 37 (3), 533-552. orr.
- FIGUEIREDO, O.; GUIMARÃES, P.; WOODWARD, D. (2002). "Home-field advantage: Location decisions of Portuguese entrepreneurs". *Journal of Urban Economics*, 52 (2), 341-361. orr.
- FRITSCH, M. (2004). "Entrepreneurship, entry and performance of new business compared in two growth regimes: East and West Germany", *Journal of Evolutionary Economics* 14. zk., 525-542. zk.
- MECCHERI, N; PELLONI, G. (2006). "Rural entrepreneurs and institutional assistance: an empirical study from mountainous Italy", *Entrepreneurship and Regional Development*, 18. zk., 371-392. orr.
- PEÑA, I. et al. (2009). *Global Entrepreneurship Monitor: Informe Ejecutivo 2008: Comunidad Autónoma del País Vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- PRODI, R. (2002). "For a New European Entrepreneurship," Instituto de Empresa. Madrid (otsailaren 7ko hitzaldia).